

## TERESAREN HIRU OLERKI EUSKAL ITZULPEN DESBERDINETAN

### Zelinaren Kanta

EGUNA: 1895eko apirilaren 28a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Jenosa, berak eskatuta, beraren urtebetetzerako (hogeita sei urte). - Argitalpena: HA 98, berrogeita hamaiaka ahapaldi, beraietarik bi berrikutuak, eta hogeita hamalau bertso zuzenduta. - DOIÑUA: *Combien j'ai douce souvenance.*

Zelinaren «sorkarien Kanta», baina Teresarena areago. Maitasunez biziren gailurra iga-rota, poztasunez zehazten ditu berak bere Maitearengan eraldaturik aurkitzen dituen Kreazioko aberastasunak.

*Lore, lurrin, barazki eta txorien sinfonía honek Zelinaren olerki bi orkestratzen ditu. 1895eko martxoko igande baten, ahizpa Jenosa lehenengo negu-txitintxa hartzen doala, haren ahizpak geldiarazten du: «Baimena behar da!». Gelara sartu denean, nobiziak kontsolamendua bilatu nahi du Jesusi deituz, olerki baten, eta olerki hori Berarenizat utzi du. Berba bakar bat-zuek zulatuko dute goibeltasunaren geruza:*

Nik biltzen dudan lorea, oi nire Errege,  
Zeurea da!

Teresa Zelinari laguntzera dator eta, arimako maistraren sen ziurrarekin, arreta hartzen du ezer iraganeko alaitasunen itzaletan geldi ez dadin; horrexek eragiten dio bitartean olerkia gehiegi urtzen, izan ere, berau da bildumako luzeena ahapaldien kopuruari dagokionez (berrogeita hamabost). Haurtzaro eta gazarotik (A Esk. idazten ari da) biek dituzten oroitzapenak, familiakoak eta hantz ere izadikoak dira Teresak maitasunezko olerki honetan azaltzen dituenak; guztia atal handi bitan banaturik: Karmelera sartu arte (1. ahapalditik 31.era) ta «orain» (32. ahapalditik amaitu arte).

*Ukaezina da Joan Gurutzekoaren eragina (Kantu izpirituala, XIV-XV. ahapaldiak) eta Teresak berak ematen du hori aditzera 1895eko gutun baten (TG 135). Santu bien senidetasuna biek duten funtsezko senean datza, eta sen hori estetikatik harantz doa: sortu diren aberastasun guztiak Kristorengan biltzen dira.*

- 1      Oh! que j'aime la souvenance  
       Des jours bénis de mon enfance....  
       Pour garder la fleur de mon innocence  
       Le Seigneur m'entoura toujours  
       D'amour!...
- 2      Aussi, malgré ma petitesse  
       J'étais bien remplie de tendresse  
       Et de mon cœur s'échappa la promesse  
       D'épouser le Roi des élus  
       Jésus!...
- 3      J'aimais au printemps de ma vie  
       Saint Joseph, la Vierge Marie  
       Déjà mon âme se plongeait ravie  
       Quand se reflétaient dans mes yeux  
       Les Cieux!...
- 4      J'aimais les champs de blé, la plaine  
       J'aimais la colline lointaine  
       Oh! dans ma joie je respirais à peine  
       En moissonnant avec mes sœurs  
       Les fleurs.
- 5      J'aimais à cueillir les herbettes  
       Les bluets... toutes les fleurettes  
       Je trouvais le parfum des violettes  
       Et surtout celui des coucous  
       Bien doux...
- 6      J'aimais la pâquerette blanche  
       Les promenades du Dimanche  
       Les petits oiseaux chantant sur la branche  
       Et l'azur toujours radieux  
       Des Cieux.
- 7      J'aimais à poser chaque année  
       Mon soulier dans la cheminée  
       Accourant dès que j'étais éveillée  
       Je chantais la fête du Ciel  
       Noël!...

*Luis Baraiazarra*

Oi! nire haurtzaroko egun gozo-ederren  
oroitzapena bai dudala nik gogoko...  
nire errugaberaren forea gordetzearen  
Jaunak inguratutu ninduen betiko  
maitasunez!...

Horregatik, txikia naizen arren izatez,  
gainezka nengoent maitearen maitez,  
eta promes hau irten zait bihotzetik:  
hautatuene Erregerekin, Jesusekin  
ezkontzea.

Bizitzaren udaberrian maite nituen nik  
Jose santua eta Maria Birjina;  
nire arima liluraturik murgiltzen zen jadanik  
nire begietan islatzen zenean  
Zeruaren imaginal...

Maite nituen gari-soroak, ordeka,  
maite nuen urrutiko mendixka;  
oi pozez ia ez nuen amasarik hartzen  
nire ahizpekin ari nintzela biltzen  
loreak.

Atsegin nuen biltzea belartxoak,  
nabar-loreak... guzitariko loretxoak,  
nik bilatzen nuen bioleten furrina  
eta batez ere kukuprakena,  
hain zen atsegina!...

Maite nituen bitxilore zuria,  
igandeetako joan-ettoria,  
txoritxoak adarrak adar kantari  
eta zero aldearen urdin beti  
argitsua.

Atsegin nuen urtean-urtean  
neure zapata ezartzea kebidean,  
esnatu orduko hara joanik.  
Zeruko jaia kantatu ohi nuen nik  
Eguberri!...

*Santiago Onaindia*

Oi!, nik bai bizi-bizi gogoratzen  
neure umetako egun zoriontsuak...  
Neure izate errugabearen lorea gordetearren  
Juan onek beti-beti inguratutu nindun  
\* maitasunez!...

Orrela, txikia nazanagaistik,  
samurtasunez ondo betea negoan  
agintza urten jatan neure biotzefik  
senartzat artzekoa autuen Errege  
Jesus!...

Neure bizitz-udabarritik nik maite  
nebazan Jose deuna eta Maria Birjina;  
sor eta lor diñot nire arima zoratua zan  
neure begietan dirdir jarten zirenean  
zeruak!...

Maite nitun nik zeliaiak, gartzatariko soroak,  
maite neban nik urriko mendi egalak.  
Oi! pozez urturik, ozta-oztan arnasa nik artzen,  
neure aiztakaz betean lili-pitxiak batzean,  
lore politak.

Eder jatan bedar erne barriak batzea,  
lore orixtoak... mota guziak nik kutun;  
bioltxoen usaiña jatan atsegin be atsegin,  
eta batez be eder jatazan udabarrikoak  
leun eta gozo...

Gogoko jatan zan oso margarita zuria  
domeketako ara-onako ibillaldiak,  
eder-gaiñ abesten eben txoritxoak  
eta beti dizditsua zan goi-urdiaña,  
zeruetakoa.

Pozgarri jatan urtero ureero ipintea  
tximiniñ-ertzean neure zapataltxoa,  
eta itxartu orduko an nintzan ni  
zeru-kantari, eztarriarri nebalat  
Gabon kanta!...

- 8      De Maman j'aimais le sourire;  
       Son regard profond semblait dire:  
       "L'Eternité me ravit et m'attire...  
       Je vais aller dans le Ciel bleu  
       Voir Dieu!"
- 9      "Je vais trouver en la Patrie  
       Mes anges... la Vierge Marie  
       De mes enfants que je laisse en la vie  
       A Jésus j'offrirai les pleurs...  
       Les cœurs!..."
- 10     Oh! que j'aimai Jésus-Hostie  
       Qui vint au matin de ma vie  
       Se fiancer à mon âme ravie  
       Oh! que j'ouvris avec bonheur  
       Mon cœur!
- 11     Plus tard j'aimai la créature  
       Qui me paraissait être pure  
       Cherchant partout le Dieu de la nature  
       En Lui je trouvai pour jamais  
       La paix!...
- 12     Oh! que j'aimais au belvédère  
       Inondé de joie, de lumière  
       A recevoir les caresses d'un Père  
       A contempler ses blancs cheveux  
       Neigeux...
- 13     Sur ses genoux étant placée  
       Avec Thérèse à la veillée  
       Je m'en souviens, j'étais longtemps bercée,  
       J'entends encor de son doux chant  
       L'accent!...
- 14     O souvenir! tu me reposes  
       Tu me rappelles bien des choses...  
       Les soupers du soir... le parfum des roses!...  
       Les buissonnets pleins de gaîté  
       L'été!.....

*Luis Baraiazarra*

Amatxorena irribarrea nuen gogoko;  
haren begirada sakonak zioen nire irudiko:  
“betikotasunak lilituratzan eta erakartzan nau..  
banoa ni zeru urdinera  
Jainko ikustera!

“Aberrian aurkituko ditut nik  
neure aingeruak, Maria Birjina;  
bizitzan utzi ditudan alabetatik  
Jesusi eskainiko dizkiot malkoen saminia...  
bihotzak!...”

Oi! zein maite nuen Jesus Ostiakoa,  
nire bizitzaren goizean etorritako  
nire arima xoratuarekin ezkontzera;  
oi! zein zoriontsu eman nion sarrera  
neure bihotzera!...

Geroago maite izan nuen nik garbia  
iruditzen zitzaidan izakia,  
han-hemen bila, izadiko Jainko non aurkituko  
eta beragan aurkitu nuen betiko  
bakea!...

Oi! zein gogoko nuen begiralckuan,  
alaitasun eta argitasunez betekoan  
aita baten ferekak hartzea,  
haren ile zuri elurrezkoak  
behaztea...

Haren belaun gainetan eseririk,  
Teresa esna zegoelarik,  
luze urrumakatua mintzela dut gogoan jasoa,  
haren kantuaren doinu gozoa  
entzuten dut oraindik.

Oi oroimen! zugan ohi dut goza,  
zuk croitarazten didazu hainbat gauza;  
arratseko afariak, arrosen usain gozoak,  
alaitasunez beteriko basotxoak,  
udaldia!...

*Santiago Onaindia*

Amatxoren par-irriak zoratzen nindun,  
aren begirada sakonak inosten antza:  
“Betiereak zoratzen nau, ak narakar...  
Zeru urdiñera nik egaz egin nai  
Jainko ikusteko!

Aberrian aurkituko dodaz nik, antxe,  
neure aingeruak... Andra Maria,  
bizitzan itxiko dodazan neure aiztak,  
Jesus'i eskiñiko deutssoedaz malkoak...  
Biotzak!

Oi!, nik maite neban Jesus Ostia,  
neure bizitzaren goizean etorri zana,  
neure arima kondorduaz alkartzera.  
Oi!, nik bai asmo onetan edegi neutzala  
neure biotzal!...

Geroago nik kutun neban izaki bat  
garbi-garbia zala nik uste nebana,  
izadiko Jainko nainun billaturik,  
Aregan aurkitu neban nik beti-betikoz,  
bakea!...

Oi!, nik bai maite nebala ikus-lekuau,  
argiz eta poz-atseguiñez bete-beteau,  
aita baten eredu eta maite atseguiñak artzea,  
bere uledi zuritua aurrez eukirik,  
edertuak oso...

Bere belaun gaiñetan toki eginik  
Teresa'gaz gau-batzar luzeetan,  
ondo gogoratzan naz, luzez nindunak kulunkatzen,  
nik orduan aditzen aren kantu gozoaren  
mintzorra!...

Oi gomuta ederrak, atsedena dakerrenak,  
zuk amaiatxo gauza dakerstazuz gogora...  
Arrastiko apariak... larrosen usaiñia!...  
“Buissonnets”ak gozotasunez gaiñezka,  
udabarrial...

- 15        J'aimais à l'heure où le jour baisse  
             A pouvoir confondre à mon aise  
             Mon âme avec celle de ma Thérèse  
             Je ne formais avec ma sœur  
             Qu'un cœur...  
  
 16        Alors nos voix étaient mêlées  
             Nos mains l'une à l'autre enchaînées  
             Ensemble chantant les Noces Sacrées  
             Déjà nous rêvions le Cannel....  
             Le Ciel!....  
  
 17        De la Suisse et de l'Italie  
             Ciel bleu, fruits d'or m'avaijent ravie  
             J'aimais surtout le regard plein de vie  
             Du Saint Vieillard pontife-roi  
             Sur moi....  
  
 18        Avec amour je l'ai bâisée  
             Terre bénie du Colysée!..  
             Des catacombes la voûte sacrée  
             A répété bien doucement  
             Mon chant.  
  
 19        Après les joies vinrent les larmes!...  
             Bien grandes furent mes alarmes...  
             De mon Epoux je revêtis les armes  
             Et sa Croix devint mon soutien  
             Mon bien...  
  
 20        Ah! longtemps je fus exilée  
             Privée de ma famille aimée  
             Et je n'avais, pauvre biche blessée  
             Que le seul églantier fleuri  
             D'abri!...  
  
 21        Mais un soir mon âme attendrie  
             Vit le sourire de Marie  
             Et de son sang une goutte bénie  
             Pour moi se changea (quel bienfait!)  
             En lait!....

*Luis Baraiazarra*

Gogoko nuen ilunabar aldera  
nahastatu ahal izatea gogara  
neure arima nire Teresarenarekin,  
nik ez nuen osatzen nire ahizparekin  
bihotz bat baizik...

Orduan gure ahotsek bat egiten zuten,  
gure eskuak bata besteari lotuak  
batera kantatuz Eztei Sakratuak,  
amets egiten Karmelerekin...  
Zeruarekin!...

Liluratu ninduten Zuitzan eta Italian  
zero urdinak, fruitu hori-horiak,  
oroz gain atsegin izan zitzazkidan  
Aita Santu-Errege Agurgarriaren begi bizi-biziak  
nigan josiak.

Mun egin dizut nik maiteki,  
Koliseoko zoru bedeinkatua!...  
Katakunbetako ganga sakratuak  
errepika egin dio eztiki  
nire kantuari.

Malkoak etorri ziren pozaren ondoren!...  
nire kezkak handiak izan ziren...  
neure Senarraren armaz hornitu nintzen  
eta haren Gurutzea izango zen nire euskaria,  
nire on guztia.

Ah! luze egon nintzen erbestera,neure familia maitetik aldendua,  
eta ez neukan, orein gaixo zauritua,  
basarrosoa loratua izan ezik  
bcste gordelekurik!...

Baina arrats batean nire arima hunkituak  
Mariaren irribarrea ikusi zuen  
eta haren odolarene tanta bedeinkatua bat  
(hau bai mesedea!) esne bihurtu zen  
niretzat!...

*Santiago Onaindia*

Maite neban nik eguna berantz doanean  
neure gogoa, neuk nai lez urtu al nebalako  
neure Teresa maite-maitearenaz bat egiñaz,  
neure aiztearenagaz nik biotz bakarra  
osoturik...

Gure abotsak orduan nastuak ziran,  
alkarten eskuak batean kateatuak,  
alkarrekin kantatuz eztegu sagaratuak  
dagoneko guk Karmel bizi izaten,  
zerua!...

Suiza'n eta Italia'n zero urdiñak,  
urrezko frutuak birboratu ninduen.  
Niretzat batez be, bizitza osoz beteriko  
Aitasantu Zaarraren begirada gozoa  
neure gaiñ...

Maitekor mosukatu zindudazan  
Koliseo'ko lur-zati bedeinkatua!...  
Katakunba barruan goi-ganga donetsiak  
gozotasun izugarriz barriz kantatzen  
nire kantuia.

Pozaren ostean detorkidaz malkoak...  
Ugari ta gorraztak izan ziran nire inkezak...  
Neure Senarrarenak jantzi nik izkilluak  
eta aren Gurutzea izan jatan eusgarri,  
neure ona...

Ai!, luzaro biziutu nintzan erbestean,  
neure sendiko maiteetatik urrindua,  
eta ez neban euki, ar zauritu gaixoa,  
baso-larrosa bat besterik ez eukana  
estalgari!...

Baifia arrats baten nire gogo arrituak  
Maria'ren irribarrea eban somatu,  
eta aren odolez tantakada zoriontsu batek  
neugaitik aldatu egin zan (au zoriona!)  
esne!...

- 22      Alors j'aimai fuyant le monde  
          Que l'écho lointain me répondre!...  
     En la vallée solitaire et féconde,  
         Je cueillais à travers mes pleurs  
          Les fleurs!...
- 23      J'aimais de la lointaine église  
          Entendre la cloche indécise  
     Pour écouter les soupirs de la brise  
         Dans les champs j'aimais à m'asseoir  
          Le soir.
- 24      J'aimais le vol des hirondelles,  
          Le chant plaintif des tourterelles,  
     J'écoutais des insectes les bruits d'ailes  
         Aimant de leur bourdonnement  
          Le chant.
- 25      J'aimais la rosée matinale  
          Et la gracieuse cigale  
     J'aimais à voir l'abeille virginal  
         Qui préparait dès son réveil  
          Le miel.
- 26      J'aimais à cueillir la bruyère  
          Courant sur la mousse légère  
     Je prenais voltigeant sur la fougère  
         Les papillons au reflet pur  
          D'azur.
- 27      J'aimais le ver luisant dans l'ombre  
          J'aimais les étoiles sans nombré  
     Surtout j'aimais l'éclat en l'azur sombre  
         De la lune au disque d'argent  
          Brillant.
- 28      J'aimais à combler de tendresse  
          Mon petit Père en sa vieillesse  
     Il m'était tout... bonheur... enfant... richesse!...  
         Ah! je l'embrassais tendrement  
          Souvent.

*Luis Baraiazarra*

Orduan mundutik ihes eginez nahi nuen  
urrutiko oihartunak niri erantzutea!...  
ibar bakan eta jorian biltzen nituen  
neure negar-samincen artean  
loreak!...

Atsegin nuen urrutiko eliza,  
aditzea kanpaiaren hots ez-zehatza;  
haizekiriaren intziriak entzuteko  
landetan esertzea izaten nuen gogoko  
arratsean.

Atsegin nuen enaren hegaldia,  
usapalen kantu negartia;  
zomorroen hegal-hotsa aditzen nuen nik,  
haien murmuriotik gogoko izanik  
kantua.

Gogoko nuen goizeko ibintza  
eta txitxarra graziaz betca;  
gogoko nuen esnatuz gero eztia  
prestatzen zuen erle garbia  
ikustea.

Gogoko nuen txilarra biltza,  
goroldi leunaren gainean korrika  
atzematen nituen tximeletak, hegaka  
iratze gainetan, urdinaren irudi  
garbi-garbi.

Gogoko nuen ipurtargia itzalcan,  
gogoko nituen izar kontaezinak  
batez ere gogoko nuen urdin ilunean  
illargiareni distira zilarrezko biribilean  
diz-diz egincz.

Neurc aitatxo bere zahartzaroan  
txeraz betetzea gogoko nuen;  
hura zitzaidan dena...zoriona...umea...altxorral!...  
Ah! nik samurki laztantzen nuen  
sarritan.

*Santiago Onaindia*

Eder jatan orduan, ludi-otsez urrutti,  
asagoko dunbadak nireei erantzun egion!...  
Ibar bakartsuan, soiñu bakanetan jorian,  
nik batzen nebazan zearka neure negarrak,  
lore-pitxiak!...

Atsegin neban an urriñeko eleizea,  
ala-ola entzuten zan ezkil meia;  
aize ezti-eziaren intziriak entzuteko,  
zelai-landeretan atsegin jatan jartea  
arrats-beran.

Zoratzen ninduan alaien egazak,  
turturen surmur barnekojak entzunak;  
aditzen neban nik mozorroen ego-otsa...  
txastaluz euren zanpaketa latza,  
kantua.

Nik maite neban goizeko iruotz leunea  
eta txitxarra esker-doaiez jantzia;  
eder jat erle garbi-aratza ikustea,  
goizean esnatu-ala gertau-miñez  
eztia.

Atsegin jatan gitarrrea batza  
oroldi bigunaren gaiñ arin ibilliz;  
ira gaiñean irauka ebiltzan mitxeletak  
atzemon oi nebazan, dizdiz txau oria  
croienak.

Nik eder neban ipurtargia geriz-unean,  
eder nebazan konta ezin-alako izartak,  
eta bereziki nik maitatzen ori-arreko dizdiza,  
illargiareni kurpil zidarrezkoia,  
dizdizka.

Nik atsegin neban samurtasunez betea  
neure aitatxo berc zartzaroko egunetan;  
Bera jatan oro... ontasuna... ume...altxor!...  
A!, nik besarkatzen neban, edo samur,  
sarritan.

- 29      Nous aimions le doux bruit de l'onde  
           Entendre l'orage qui gronde  
           Le soir en la solitude profonde  
           Du rossignol au fond du bois  
           La voix!...
- 30      Mais un matin son beau visage  
           Du Crucifix chercha l'image...  
           De son amour il me laissa le gage  
           Me donnant son Dernier regard.:.  
           "Ma part!....."
- 31      Et de Jésus la main divine  
           Prit le seul trésor de Céline  
           Et l'emportant bien loin de la colline  
           Le plaça près de l'Eternel  
           Au Ciel!...
- 32      Maintenant je suis prisonnière  
           J'ai fui les bosquets de la terre  
           J'ai vu que tout en elle est éphémère...  
           J'ai vu mon bonheur se fletrir  
           Mourir!.....
- 33      Sous mes pas l'herbe s'est meurtrie!...  
           La fleur en mes mains s'est flétrie!...  
           Jésus, je veux courir en ta prairie  
           Sur elle ne marqueront pas  
           Mes pas.....
- 34      Comme un cerf en sa soif ardente  
           Soupire après l'eau jaillissante,  
           O Jésus! vers toi j'accours défaillante,  
           Il faut pour calmer mes ardeurs  
           Tes pleurs!...
- 35      C'est ton amour seul qui m'entraîne.  
           Mon troupeau je laisse en la plaine  
           De le garder je ne prends pas la peine,  
           Je veux plaire à mon seul Agneau  
           Nouveau.

*Luis Baraiazarra*

Gogoko genuen uhinen hots ezta,  
orro egiten zuen ekaizta entzutea,  
bere bakardade sakonean arratsaldea,  
urretxindotraren abestia  
baso barnean!...

Baina haren aurpegi ederrak goiz batean  
Gurutzearen irudia bilatu zuen...  
Bere maitasunaren bermea utzi zidan,  
bere azken begirada emanez  
niri sonipartez!...

Eta Jesusen Jainkozko eskuak  
Zelina kendu zion, altxor bakarra  
eta muinotik oso urrutti eramanda  
han kokatu zuen Betikoaren ondoan  
Zeruan!...

Orain ni preso aurkitzen naiz,  
lurreko basotxoetatik ihes egin dut,  
hango guztia iragankorra dela ikusi dut,  
ikusi dut neure zoriona ihartzen,  
hiltzen!...

Nire oinpean lardaskatu egin da belarra!...  
Iorea nire eskuetan gelditu da iharra!...  
Jesus, nik nahí nuke ibili zure zelaitik,  
han ez da geldituko nire urraisen  
cinatzik...

Oreinak bere egarri gartsuan  
ur bizietara irrika duen moduan,  
oi Jesus! lasterka noa zugana nekaturik,  
nire sukarra ematzeko beharrezkoak  
dira zure malkoak!...

Zure maitasunak soilik nau erakartzen.  
Ibarrean uzten dut neure artaldea,  
hura zaintzeko artarik ez dut hartzen,  
neure biñdots berri bakarrari poz ematea  
da nire borondatea.

*Santiago Onaindia*

Guk eder genduan jabian ur-ots ezta,  
orrubasartekorraren truizu ekaiztia,  
bakartade itsu-itsuan arrastia igaro,  
oian barru-barruan uretxindorraren  
aotsa entzun!...

Goiz batean, baiña, aren arpegi ederrak  
Gurutzearen irudia nai izan eban billa...  
joatean, bere azken-begitua laga eustan,  
bere maitasunaren ezaugarria, oso.  
"nire zatia!..."

Eta bere Jainkozko eskuz Jesus'ek  
eukan altxor bakarra, Zelina, kendu eutson,  
eta muinotik agitz urrutti eroanik,  
Jainko betikoaren ondoan jarri eban,  
zeruan!...

Orain katibu naukazu ni, atxillotua,  
lurretik eta bertako basarteetatik urrin;  
ikusi neban guztiz ala bertan utsala...  
Nik ikusi neban nire zoriona urtuz,  
ilten!...

Bedarra nire oinpean malgutu zan!...  
Lorea nire esku artean pirtxildu da!...  
Ene Jesus, zure zelai-landan nik ibilli gura,  
bertan ez dabe aztarnarik nire oinak  
itxiko...

Oreiñak legez bere egarri bizian  
saltoka doan uraren irrika dan...  
O Jesus!, zugana noa bizkor nekaturik.  
nire egarri eta sugarrik ibitzeko  
zure malkoak bear!...

Zeure maitasuna da bakar-bakarrak naroana.  
Lauan itxi dot neure talde segika etorrena,  
Onezkerro ez daukat aren ardurarik, ez leiarik,  
orain atsegindu gura dot soilkiz neure Bildots  
barria.

- 36      Jésus c'est toi, l'Agneau que j'aime  
           Tu me suffis, ô bien suprême!  
           En toi, j'ai tout, la terre et le Ciel même  
           La Fleur que je cueille, ô mon Roi  
           C'est toi!...
- 37      Jésus, beau Lys de la vallée  
           Ton doux parfum m'a captivée  
           Bouquet de myrrhe, ô corolle embaumée!  
           Sur mon cœur je veux te garder  
           T'aimer...
- 38      Toujours ton amour m'accompagne  
           En toi, j'ai les bois, la campagne  
           J'ai les roseaux, la prairie, la montagne  
           Les pluies et le flocon neigeux  
           Des Cieux.
- 39      En toi, Jésus, j'ai toutes choses  
           J'ai les blés, les fleurs demi-closes  
           Myosotis, bouton d'or, belles roses  
           Du blanc muguet j'ai la fraîcheur  
           L'odeur!....
- 40      J'ai la lyre mélodieuse  
           La solitude harmonieuse  
           Fleuves, rochers, cascade gracieuse  
           Daim léger, gazelle, écureuil  
           Chevreuil.
- 41      J'ai l'arc-en-ciel, la neige pure  
           Le vaste horizon, la verdure  
           Les îles lointaines... La moisson mûre  
           Les papillons, le gai printemps  
           Les champs.
- 42      En ton amour, je trouve encore  
           Les palmiers que le soleil dore  
           La nuit pareille au lever de l'aurore,  
           Le doux murmure du ruisseau,  
           L'oiseau.

*Luis Baraiazarra*

Jesus, zu zara nire Bildots maiteena,  
zurekin aski dut, oi nire ondasun gorena!  
zugan ditut nik lurra eta Zerua berbera;  
zu zara nik biltzen dudan lorea,  
oi nire Erregeal...

Jesus, ibarreko lili paregabea,  
zure usain gozoak lilitratu gaitu  
mirrazko lorresorta, oi korola lurrinsu!  
neure bihotzean nahi dut nik zu gordetzea,  
maitatzea...

Zure maitasuna beti dut lagun nik,  
basoak, landa-zelaiak zugan ditut nik,  
kanaberak, belardia, mendi-punta,  
Zeruetako euri zaparradak eta  
elur-maluta.

Zugan ditut, Jesus, gauza guztiak,  
baditut gariak, lore erdi-irekiak,  
oreilore, urebotoi, arrosa apainak,  
lirio zuriaren freskotasuna,  
usaina!...

Nik dauzkat lira melodiotsua,  
bakardade harmoniatsua,  
ibaiak, haitzak, urjauzi ikusgarriak,  
adarzabal arin, gazela, katagorriak,  
orkatzak.

Nik dauzkat ostadarra, elur garbia,  
ortzemuga zabala, berde ugaria,  
urretiko ugarteak... uzta horia,  
tximeletak, udaberri alaia,  
landa-zelaiak.

Zure maitasunean aurkitzen ditut gainera:  
eguzkiak urez jantziriko palmera,  
gaua goiz-urratzearen antz-antzokoa,  
errekastoaren zurrumurru gozoa,  
txoritxoa.

*Santiago Onaindia*

Zeu zara, Jesus, nik lastan dodan Bildotsa,  
Zu naikoa zaitut, enc goi-goiko ondasun!  
Zugan daukat aro, lurra eta zerua be bai.  
Zu zara, oi cne Errege!, nik ebagiten dodan  
Lorea!....

Araneko lirio atsegigarri, o Jesus!,  
zorarazten nau zure usain gozo-leun-eztiak;  
miritezko lere-txorta, oburuiña usaintsu!,  
gorde eta maitatu nai zaitut eten gabe  
biotzean...

Nainoz dot lagun zure maitasuna,  
Zugan daukadaz basoak, zelai-landak;  
kanartea, bedardiak, mendi-gainak, neureak;  
zeruetako datozen euriak eta edur-mataza  
lodiak.

Zeugan daukadaz, Jesus, gauza guztiak,  
gariak daukadaz, lili erdi-edegiak,  
miosotak, urezko botoiak eta larrosak,  
nik daukat ibarreko lirio zuria czoaren  
usaina!...

Nik daukat lira eresi gozoz jantzia,  
basarte bizi, kantu ta durundu eztizkoa,  
lorak, arkaitz dotore eta ur-jausi bipillak,  
basautz arin, orkatz, katamixar,  
pututxa.

Ustarkua daukat eta cdurtza eder garbia,  
urriñeko osertz zabala, orlegitasuna,  
an asagoko ugarteak... eldutako laboreak,  
txiruliru politak, udalen jario-panpoxa,  
landa-zelaiak.

Zure maitasunean, aurkitzen dodaz oraindik  
eguzkiak urez jarten ditu palmerak,  
baita daurkit gaba goiz-urratze antzekoa,  
errekastoen surmur atsegin gozoa,  
egaztiak.

- 43      J'ai les grappes délicieuses,  
           Les libellules gracieuses,  
           La forêt vierge aux fleurs mystérieuses,  
           J'ai tous les blonds petits enfants  
           Leurs chants.
- 44      En toi, j'ai sources et colline  
           Lianes, pervenche, aubépine  
           Frais nénuphars, chèvrefeuille, églantine  
           Le frisilis du peuplier  
           Léger.
- 45      J'ai l'avoine folle et tremblante,  
           Des vents la voix grave et puissante,  
           Le fil de la Vierge, la flamme ardente  
           Le zéphir, les buissons fleuris,  
           Les nids.
- 46      J'ai le beau lac, j'ai la vallée  
           Solitaire et toute boisée  
           De l'océan j'ai la vague argentée  
           Poissons dorés, trésors divers  
           Des mers.
- 47      J'ai le vaisseau fuyant la plage,  
           Le sillon d'or et le rivage  
           J'ai du soleil festonnant le nuage  
           Alors qu'il disparaît des Cieux  
           Les feux.
- 48      En toi, j'ai la colombe pure.  
           En toi, sous ma robe de bure  
           Je trouve bague, colliers et parure  
           Joyaux, perles et diamants  
           Brillants.
- 49      En toi j'ai la brillante étoile,  
           Souvent ton amour se dévoile  
           Et j'aperçois comme à travers un voile  
           Quand le jour est sur son déclin  
           Ta main.

*Luis Baraiazarra*

Nik dauzkat mahats-mordo atseginak,  
sorginorratz ñabar txanbelinak,  
lore hartigarridun oihan birjinak,  
haurtxo horail guztiak dauzkat nik  
beren kantuekin.

Zugan ditut nik iturriak eta mendia,  
aihenbelar, uztao, elorti zuria,  
igeñbelar hezeak, atxaparrak, basarana,  
lertxun arinaren dardara  
leuna.

Nik dauzkat olo zoro eta dardaratsua,  
haizearen soinu lodia eta indartsua,  
armiarma-sarea, su gori gartsua,  
haize meheia, sastraka lorez jantziak,  
habiaik.

Badut aintzira eder bat, badut ibar  
bakartia eta dena zuhaitzez landatua;  
itsasokoetatik, olatu zilarreztatua,  
arrain urezatuak, hainbat altxor edar  
itsasotik.

Hondartzatik urrunten daukat untzia,  
urrezko ur-ildea daukat eta itsas-hegia;  
hodei artean zehar-meharka daukat eguzkia,  
hau aienaten denean, zeruetako suak  
dauzkat.

Zugan uso aratza daukat nik.  
Zugan, nire jantzi latzaren azpitik  
aurkitzen ditut nik eraztuna, lepokoak,  
apaindurak, bitxiak, perlak, diamanteak  
brillanteak.

Izar distiratsua zugan dut nik,  
zure maitasuna maiz azaldu ohi da,  
eta oihañean zehar bezala somatzen dut nik,  
eguna gainbehera doalarik,  
zure eskua.

*Santiago Onaindia*

Mats-mordo gozagartiak daukadaz,  
margoz ñabar diran mari-burduntziak;  
lore bakan zadortsuz jositako zugazti garbia,  
nik neure esku ditut aur ulekizkurtsuak,  
euron kantak.

Zeuregan nik iturriak eta mendioak,  
malgua, sendoa, edo-ta ausi-erreza,  
uretako otzikara, aien zuria, sasi-okaran,  
lertxunaren ikara neke gitxikoak,  
-ri-ak.

Nik ba-daukat olo zoro ta dardaratia,  
aizeen abots astun eta indartsua,  
Birjinearen aria, sugar errekorra,  
aizeñio mea, sasitza loratuak,  
abiak.

Nik daukat aintzira ederra, ibarra  
bakartia, ojanez plei-plei(?) josia,  
itxasotik nirea da zidarreko olatua,  
arrain urezatuak, itxasoak diton  
altxor ugari.

Neureak ur ertzetik igesten diran untziak,  
urrezko ildoa eta itxas-egal yaukaña;  
neurea eguzkia, lañaoak islatzen dituna  
zeruko suak moteldu ta itzaliz  
doazenean.

Zugan daukat nik uso zuri-aratza,  
Zugan daukat, soñieko arrepean oindiño...  
Erestun, lepoko ta idunekoak, pitxi apañiak,  
txirlarri eta milla apaindura bitxiztatu,  
dirdaika.

Zuregan daukat nik izar ditziranta,  
Zure maitasuna sarritan agiri oi jat  
eta nik dakust orduan zapi baten zear lez,  
dakust eguna bera doanean,  
zure eskua.

- 50      Toi dont la main soutient les mondes  
          Qui plantes les forêts profondes,  
          Toi qui d'un seul coup d'œil les rends fécondes,  
          Tu me suis d'un regard d'amour  
          Toujours.
- 51      J'ai ton Cœur, ta Face adorée  
          Ton doux regard qui m'a blessée  
          J'ai le baiser de ta bouche sacrée  
          Je t'aime et ne veux rien de plus  
          Jésus.
- 52      J'irai chanter avec les anges  
          De l'amour sacré les louanges  
          Fais-moi voler bientôt en leurs phalanges  
          O Jésus! que je meure un jour  
          D'amour!....
- 53      Attiré par la douce flamme  
          Le papillon vole et s'enflamme.  
          Ainsi ton amour attire mon âme  
          C'est en lui que je veux voler  
          Brûler!...
- 54      Je l'entends déjà qui s'apprête  
          Mon Dieu, ton éternelle fête.....  
          Aux saules prenant ma harpe muette  
          Sur tes genoux je vais m'asseoir  
          Te voir!...
- 55      Près de Toi, je vais voir Marie...  
          Les Saints... ma famille chérie!...  
          Je vais après l'exil de cette vie  
          Retrouver le toit Paternel  
          Au Ciel!.....

*Luis Baraiazarra*

Zu, zeure eskuz munduei eusten diezuna,  
oihan itsuak landatzen dituzuna,  
begirada soil batez emankor bihurtzen dituzuna;  
amodiozko begirada batez jarraitzen didazu  
beti zuk.

Zure bihotza daukat, zure aurpegi gurgaria,  
zauritu nauen zure begirada ezta,  
zure aho sakratuaren musua daukat nik;  
nik maite zaitut eta ez dut nahi besterik,  
ene Jesus.

Maiasun sakratuaren gorespenak  
kantatzera joango naiz ni aingeruekin,  
hegarazi nazazu laster hain taldekin;  
oi Jesus! hil nadila ni egun batez  
maitearen maitez!...

Sugar gozoak erakarrita  
hegan egin eta erre egiten da tximeleta.  
Halaxe erakartzan du zure amadioak nire arima;  
hantxe nahi dut nik hegan egitea,  
kiskaltzea!...

Entzuten dut badoala prestatuz,  
zure betiko jaia, ene Jainko...  
nire harpa isila sahatsetatik hartuz,  
zure belaun gaineannaiz escriko  
zu ikusteko!...

Zure ondoan ikusiko dut Maria...  
Santuak... neure familia maitea!...  
bizitza honetako erbeste ondorenean  
nik berraurkituko dut Aitaren etxea  
Zeru gorenean!...

*Santiago Onaindia*

Zuk zeure eskuz eusten dozuz munduak,  
zuk landatzen dozuz oian zabal itsuak;  
zeuk begi-klishka batez emonkor egiten dozuz;  
Zuk maitasunezko begitu samurrez nozu  
beti zaintzen.

Nik zure Biotza dantak, zure Arpegi gurgarria,  
zeure begirada gozoz zauritu ninduzun.  
Zure ao doneak emoniko mosua neurea dot,  
maite zaitut, ene Jesus, beste ezer ez dot  
gogoan.

Aingeruekin kantatzera joango naz ni,  
maitasun donearen goralepenak kantatzen.  
Bai, noala ni bizkor arein taldeak ugaritzera.  
O Jesus!, ni maitasunet il nadilla  
egun baten!...

Su atsegiañak egazka erakartza,  
mitxelatxoa ba-doa eta erre egiten da;  
olantxe zure maitasunak nire arimea erakarten,  
araxe nik egaz egin nai dot, pozkiro,  
bertan errel!...

Onezkero ba-dantzut etorten,  
ene Jainko, zure jai betirokoa...  
Saratsetatik artuko dot neure arpa ixilla.  
Zeure belaun gañeari naz jarriko  
ikus zaidazan!...

Zeugandik ur-ur ikusiko dot Maria...  
Santuak... neure familiko maiteak!...  
Bizitza onen erbeste ondoren, seguru,  
barrio aurkituko dot zeruan  
gurasoen etxea!...